



Hizkuntzaren gatazka

Euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoa eta diskurtso euskaltzalea Nafarroan

(The discourse that opposes the normalisation of the Basque language and the basquephilic discourse in Navarre)



ERIZE ETXEGARAI, Xabier

Zuzenbidearen Historiako katedraduna
Eusko Ikaskuntza
Gaztelu plaza 43 bis, 3.D
31001 Iruñea
erizefra@hotmail.com

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 19-26]

Euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoak Nafarroako hizkuntza politika aldatzea du helburu, gaztelania hutsean mintzatzen direnentzat baztertzaila eta kontzepzio nazionalisten eraginpean formulaturikoa dela argudiatuz. Antzekotasunak ditu gaztelaniadun diskurtso tradizionalistarekin eta Ameriketako Estatu Batuetako *English Only* delako jarrerarekin.

Giltza hitzak: Diskurtsoa. Soziolinguistika. Euskara. Gaztelania. Nafarroa.

El discurso contrario a la “normalización” del euskera tiene por finalidad modificar la política lingüística de Navarra, por considerarla discriminatoria para los castellanohablantes y prisionera de concepciones nacionalistas. Presenta similitudes con el discurso tradicional español y con la corriente *English Only* de los EEUU.

Palabras clave: Discurso. Sociolingüística. Euskera. Lengua española. Navarra.

Ze discours contraire à la “normalisation” de l’euskera défend le changement politique linguistique de Navarre, car il considère cette même Navarre discriminatoire pour les personnes parlant l’espagnol et prisonnière de conceptions nationalistes. Il présente des similitudes avec le discours traditionnel de langue espagnole et avec l’*English Only* des Etats-Unis.

Mots clés: Discours. Sociolinguistique. Langue basque. Langue espagnole. Navarre.

1. Sarrera

Eskerrik asko mahai-inguru honetara etorri zareten guztioi eta, nola ez, antolaketaren ideia eta ardura izan duten *Eleria* aldizkariko kideei. Espero dut eztabaida aberasgarria izango dela denontzat.

Txosten honen helburua bikoitza da. Hasteko, euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoaren azterketa aurkeztea, *RIEV* aldizkarian argitaratu dena¹, eta, azterketa horretatik abiatuta, euskaltzaletasunaren gaur egungo erronkak aztertzea, batez ere diskurtsoaren mailan.

Gaia, oro har, garrantzi handikoa iruditzen zait. Susmoa dut gero eta gogo handiagoa dagoela hausnarketa berriak egiteko euskararen aldeko lanetan gabiltzan artean, orain arte erabili ditugun planteamenduak berraztertu eta zerk balio digun eta zerk ez ikusteko. Gauden mailan, garrantzitsuena ideiak edo gogoetak plazaratzea da, bakoitzak bereak, eta ez hainbeste erantzun biribilak ematea. *Brainstorming*-aren garaian gaude oraindik, eta denborak esango digu nola antolatzen diren planteamendu berriak.

Aurkezpena hiru zatitan banatu dut: lehenik, euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoa; ondoren, diskurtso honek eragiten dizkidan gogoetak, eta, azkenik, euskararen aldeko diskurtsoaren ardatz nagusiak: balio didatenak eta balio ez didatenak.

2. Euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoa

2.1. Lanaren kokapena

Lan honen oinarrian, Diskurtsoaren Azterketaren diziplina eta, hori baino zabalago, nire kezka soziolinguistikoko orokorrak daude.

Gogoeta hau soziolinguistikaren ikuspuntutik eginga dagoela esan dut. Soziolinguistika hizkuntzen gizarte egoeraz arduratzen da, eta gurea bezalako kasuetan, hizkuntza komunitateen arteko harremanak aztertzen ditu.

Bestalde, Diskurtsoaren Azterketaren teoriaren arabera, diskurtso orok hiru alde ditu: (a) hizkuntzaren erabilera, ahozkoa zein idatzia, (b) uste edo ideologiaren komunikazioa

(kognizio soziala), eta (c) gizarte mailako elkarrekintza edo interakzioa (Van Dijk, 1997/2000 eta 1998).

Aipa dezadan, halaber, lan honetarako erabili dudan arau metodologiko bat: aztertu ditudan testuetan agertzen diren kontzeptu eta kategoriak errespetatu egin ditut azalpenean, kanpoko kategoriarik ezarri gabe. Adibidez, “normalizazioaren” aurkako diskurtsoa aztertzerakoan, termino horrek testuetan bertan duen erabilera errespetatu dut, nahiz eta, orain ikusiko dugunez, “normalizazio” hitzaren beste adiera batzuk ere badiren.

2.2. “Normalizazioa”

Aztergai izan ditudan testuak “normalizazioaren” kontzeptuaren aurka agertzen dira espresuki. Aldiz, badaude beste hitz batzuk testuen autoreek ontzat ematen dituztenak: hizkuntza “babestea”, “bultzatzea”, “sustatzea” eta abar.

Esan behar da “normalizazio” terminoa oso erabilia dela Penintsulako soziolinguistika eta legerian (Mollá eta Viana, 1991), ez hainbeste nazioartekoan, esanahi tekniko jakin batekin. Katalanek sortutako kontzeptua da. Izan ere, normalizazio hitzak bi esanahi biltzen ditu: (a) hizkuntzaren “norma” finkatzea, arau gramatikalak, lexikoak, ortografikoak... alegia, eta (b) egoera “normalean” egotea, gizarte funtzio guztiak betetzea alegia, ingelesa, frantsesa edo gaztelania bezalako hizkuntzek egiten duten bezala.

2.3. Aurrekariak

Gure gaiari ekiteko, argigarriak izan daitezkeen beste lan batzuk aipatu nahiko nituzke orain. Nafarroari dagokionez, egungo egoeraz *Euskararen inguruko diskurtsoaren eraiketa Nafarroan* (Arregi, 2000) lana dugu, eta, iraganaz, Nafarroako euskararen historia soziolinguistikokoari buruzko neure lanak (Erize, 1997 eta 1999) jasoko nituzke.

Nire lanetan agertzen da Nafarroako historia soziolinguistikokoan zehar bi hizkuntza komunitate izan direla (euskal hiztunak eta erdal hiztunak), eta bien artean hierarkiazko harremana egon dela mendeetan zehar. Nafarroako erdal hiztunek erdara goraiatzera eta euskara gutxiestera jotzen duen diskurtsoa ehundu izan dute beren lehentasunezko gizarte-egoera gordetzeko.

1. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 46, 2, 2001; 517-681 orr.

Nafarroatik kanpo, Estatu Batuetan sortu eta garatu den *English Only* mugimenduari buruzko ikerketak aipa daitezke. *English Only*, eleaniztasunaren aurkako eta asimilazioaren aldeko gizarte ekimen bat da. Gaztelaniaren aurka garatu da bereziki ideologia hau. Crawford-ek aztertu ditu diskurtso horri aurre egiteko Estatu Batuetako hispanoek dituzten zailtasunak (Crawford, 2000). Orobat, aipagarria da hizkuntzen bizikidetasunari buruz bi joera nagusi egon direla munduan: eleaniztasunaren onspena eta, horren aurkakoa, asimilazionismoa.

Galesari buruz artikulua zientifiko batean irakurritako azterketak (May, 2000) aditzera ematen zuen galesaren babesaren gainean adostasun zabala egon arren, hizkuntza politikak praktikara eramateko orduan adostasuna ez zela hainbestekoa; Administrazioarako lanpostuetan hizkuntza baloratzeko orduan sortzen ziren liskarrak, adibidez. Horixe da, hain zuzen, Nafarroan gertatzen dena.

2.4. Aztertutako testuak

Aztertu dudak *corpus*-a bi material motaz osaturik dago: (a) 1997 urtetik aurrera zenbait nafar autorek argitaratu emandako testuak (liburuak, artikulua eta liburuxkak), denetarik iritziak biltzen dituztenak; eta (b) eguneroko prentsan (*Diario de Navarra*, *Diario de Noticias*, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Gara*) nafar autoreek 2002ko urtarrilaren 1etik otsailaren 15era argitaratutakoak.

Autoreak hauek dira: Ignacio Aranaz (2001), Nafarroako Unibertsitate Publikoko kultur jardueratarako teknikaria; Víctor Manuel Arbeloa (2001), nafar politikaria, Nafarroako Parlamentuko lehen presidente izandakoa, Estatuko Parlamentuan Nafarroako senatari, Europarlamentari PSOEn izenean, nahiz eta 2002. urtearen hasieran alderdi hori utzi eta UPN alderdira hurbildu zen; Aurelio Arteta (1997a, 1997b, 1997c), Euskal Herriko Unibertsitateko Etika eta Filosofiako Katedraduna, diskurtso berriaren ideia nagusiak mamitu zituena; Nafarroako PSOE-PSNren Eskualdeko Batzarra (2000); Jaime Ignacio del Burgo (2000), Nafarroako Gobernuko presidente izandakoa eta Estatuko Senatuan Nafarroako ordezkari dena; Pedro Pegenaute (2001), Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko eta Hizkuntza Politikako zuzendari nagusia; eta Fernando Sebastián (2002), Iruñako artzapezpiku eta Tuterako apezpikua.

Horiez gain, kontuan izan ditut Nafarroako Gobernuak hizkuntza politika arloan 2000ko abendutik 2002ko uztailera bitartean

aldarrikatutako foru dekretu, foru agindu eta akordioak.

2.5. Emaitzak: aztertutako diskurtsoan azaltzen diren gai nagusiak

Diskurtsoa aztertzerakoan oso garrantzitsua da jakitea nork osatzen duen "Gu" delako taldea eta nork, berriz, "Haiek" delakoa. Bestela esanda, nola osatua dagoen diskurtsogileak "bere"-tzat edo propiotzat duen giza-taldea eta zein geratzen den talde horretatik at. Bereizketa hori eginda, aztertu ahal izango dugu zein harreman mota iradokitzen duen aztertutako diskurtsoak "gu" eta "haiek" taldeen artean.

Nor da "gu"? Espainolaren hizkuntza komunitatea. Azpiulertzen da Nafarroako erdaldunek gehiengoa osatzen dutela eta, hedaduraz, "gu" horrek Nafarroako biztanle guztiak -ez bakarrik erdaldunak- barne hartzen dituela, eta baita Nafarroako erakundeak ere.

Nor dira "haiek"? Euskaldunak, nafarren %10 besterik ez direnak, gutxiengoa beraz. Nazionalistak, muturreko nazionalistak, ETaren terrorismozaleak eta, hedaduraz, ETA bera.

"Gu" eta "Haiek" elkarren kontra daude, beraz, "Gu", nafar guztiak eta nafar erakundeak, gure hizkuntza espainola dela; eta "Haiek", nafarren gutxiengo euskalduna, abertzaleak.

Aztertutako testuetan agertzen den oinarritzko ideia da, "haien", nazionalisten, helburua dela euskararen normalizazioa, eta horren ondoren edo horrekin bat, independentzia nazionala eta Nafarroa Euzkadin sartzea (Del Burgo, 2000; 91. or.). Aipaturiko autoreek gaztigatu egiten dute irakurlea, "**ez gaitetzen inozoak izan, dena da politika, ez gara engainatu behar**" ("Desd'el gallo de San Cernin", *Diario de Navarra*, 2002-01-20; 22. or.). Bere esanetan, euskararen auzia Nafarroa-Euzkadi gatazkarekin uztarturik dago (Del Burgo, 2000; 91. or.). Izan ere, euskara, kulturaz mozorrotu nahi badute ere, abertzaleen Troiako Zaldia da (*ibid.*).

Euskararen inguruko jarduera ilun horiek **susmagarri** bihurtzen dituzte euskara eta euskaltzaleak (PSN-PSOE, 2000).

Bestalde, Artetaren diskurtsoan, **ez dugu kulpa kontzientziarik izan behar euskararen atzerakadagatik**, eta ez dugu euskara berreskuratzeko betebeharrak moral edo politikorik onartu behar (Arteta, 1997a eta 1997c). Euskara fikzioa da, bereziki eremu mistoan eta ez-euskaldunengan. Ez da egon euskararen kontrako

jarrera historikorik (Del Burgo, 2000; 86. or.), hiztunak berak izan dira espainolaren alde egin dutenak, gutxinaka, euskara bera baztertuz, ez baitzeukan erabilgarritasunik gaztelaniaren ondoan (Arteta, 1997a). Euskararen galera euskal hiztunei egotzi behar zaie gehienbat, nahiz eta bestelako faktore sozio-politikoak ere izan diren (*ibid.*)

Argudio historikoek pisu handia dute orobat aztertutako diskurtsoan. **Lingua navarrorum** delakoa, esate baterako, euskarari erreferentzia egiten dion esamoldea izan arren, ez zen nafar guztiez ari; nekazari eta artzainen hizkuntza bakarrik adierazten zuen, eta ez nafar guztien hizkuntza (Del Burgo, *ibid.*; 79 or. eta Arbeloa, 2001; 15-18 orr.).

Nork erabaki behar du hizkuntzari buruz? Nork ditu **erabakimena** eta kontrolatzeko ahalmena? Guk geuk; alegia, nafarren borondatea ordezkatzeko duen nafar Parlamentuak (Del Burgo, 2000; 88. or.). Hori dela-eta, Del Burgok dio ez duela zentzurik nazionalistek bahituta duten euskara bultzatzeko erraztasunak emateak (2001; 90. or.).

Izugarrizko **eskuzabaltasunez** jokatu izan dugu nafarrek euskararekiko. Amejoramentuaz geroztik, ahalegin itzela egin da euskara sustatzeko. A zer inozoak izan ginen! Zer hanka sartze handia! (Del Burgo, *ibid.*; 87. or.).

Europako Hizkuntzen Nazioarteko III. Sinposioa zela-eta, 1997an, Artetak bere artikuluetan adierazi zuen hizkuntza politikaz aldatu beharra zegoela Nafarroan. Euskararen aldeko itxurazko adostasun faltsua hautsi egin behar zela behingoz, eta agintariek hizkuntzari buruz bizi zuten eskizofreniari amaiera eman behar zitzaioela, gutxiengo konplexuak uxatuz (Arteta, 1997a). Artikulu horiek finkatu zuten azkenik euskararen normalizazioaren kontrako diskurtsoaren ardatza, eta ordutik aurrera Nafarroako hizkuntza politikak norabide berri jakin bat hartu zuen.

Beste zenbait autorek, hari beretik, Nafarroako hizkuntza politikaren berrikuspenari buruzko proposamenak egin zituzten, Gobernuak, azkenik, diskurtso hori barneratu zuen arte, araudia aldatuz eta agindu berriak aldarrikatuz.

Zein arrazoi eman zituen Gobernuak hizkuntza politikari eman zion taxukera berria azaltzeko? Hasteko, erdaldunek jasaten zuten mendekotasuna eta diskriminazioa aipatu zituen. Del Burgok salatu zuen erdaldunak euskararen aldeko diskriminazioaren ondorenak jasaten ari zirela (2000; 93. or.), eta Pegenautek, berriz, 372/2000 Foru Dekretua azaltzerakoan nafar guztien berdintasunari egiten zion erreferentzia,

eta hizkuntza zela-eta lanpostuak lortzeko orduan diskriminaziorik ez jasateko eskubideari.

Berebat, oso larritzat jotzen du Del Burgok eremu mistoan egitatezko ofizialtasuna ezarri izana praktikan (Del Burgo, 2000; 89. or.). Muturreko nazionalismoak eragindako politika izan da hori; errealitate sozio linguistikoari inola ere egokitzen ez zaion egoera batera heldu gara (*ibid.*; 88. or.).

Nazionalisten erasoaren beste adierazle bat, errotulazio eta agiri elebidunak dira. Del Burgoren ustez, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak beregan hartu zuen Nafarroa osoa elebiduntzeko erronka. Foru Erkidegoaren edozein errotulu euskaraz ere jarri behar dela uste zuen Zuzendaritza horrek (Del Burgo, 2000; 91. or.).

Orain arteko gogoetak aipaturiko autore guztietan agertzen dira nola edo hala; hemendik aurrerakoak, berriz, autore batzuen ikuskera pertsonalak dira. Aranaz (2001), esate baterako, eleaniztasunaren ideia agertzen da; bere ustez ez da aberasgarria, kaltegarria baizik. Eta, horrekin lotuta, euskara bultzatzea izugarri garestia dela dio, eta hobe dela dirutza hori behar handiagoko beste zereginetan gastatzea. Artetak (1997b), berriz, euskaldunen hizkuntza eskubideen ideia zalantzatan jartzen du. Ez litzateke galera handia euskara galtzea. Halaber, euskara utzi eta erdarara pasatzeko deia egiten du zuzenean *Diario de Navarra*-ra bidalitako gutun batek (2002-02-11). Ume nafarrek, euskara baino, gaztelania ikasi behar dute lehenik, eta bigarren hizkuntza ingelesa izan behar dute eta ez euskara, ezertarako balio ez duena.

Hizkuntza komunitateen arteko adostasunaren ideiaz. PSOE-PSNk Nafarroako eleaniztasunari buruzko akordioa edo topagunea bultzatzeko deia egiten du (2000). Arbeloak ere aipatzen du ideia hori (2001; 49. or.). Hala ere, aztertu ditugun autore gehienek ez dute topagunerako aukerarik ikusten. Artetak (1997a) esan du euskararen aldeko hizkuntza politikak berez bultzatzen duela gatazka sozial eta politikoa.

2.6. Azterketa

Aipaturiko testuen azterketak bi ardatz ditu: (a) norberaren irudia positiboa izaten da beti, eta besteena negatiboa; eta (b) diskurtsoak egitura ideologiko jakin bat du.

Lehenik eta behin, ideologikoki polarizaturiko diskurtsoetan ohikoa da (a) taldekideen alderdi positiboak nabarmentzea eta

beste taldearen alderdi negatiboak salatzea; (b) alderantziz, besteen alderdi onak isiltzen eta taldekideen alderdi negatiboak ezkatzen saiatzea.

Teun A. van Dijk (1998; 69-70 orr.) autoreak kategoria hauek dituen eskema proposatzen du diskurtsoen azterketarako: taldekideak, ekintzak, helburuak, balioak, kokapena eta baliabideak. Horien arabera, honelakoa litzateke aztertu dugun diskurtsoaren egitura ideologikoa:

- *Taldekideak*: erdigunean: Nafarroako erdaldunak; hedaduraz: nafar guztiak.
- *Ekintzak*: gaztelaniaz funtzionatzea; nafar gizartea gaztelaniaz antolatzea.
- *Helburuak*: gaztelaniaren lekua bermatzea; euskarak ez ditzala egungo mugak gainditu.
- *Balioak*: gaztelaniaren balioa; nafarrek ez dute jadanik euskara begikotasunez ikusten.
- *Kokapena eta gainerako taldeekiko harremanak*: nafar gizartearen eta bere erakundeen erdigunetik.
- *Baliabideak*: nazio hizkuntza izatearen botere sinbolikoa; Nafarroako erakundeen botere erreala.

3. Diskurtso honek eragiten dizkidan gogoetak

Aztertutako diskurtsoak gogoeta ugari eragiten dizkit. Hona nagusienak:

- Diskurtso hau aintzat hartu behar dugu, garrantzi handikoa baita:
 - Ikustea besteek zer esaten duten, edo zer eragin duten gure mezuek beraiengan.
 - Horren arabera, gure argudioak zorroztea.
- Oraingo diskurtsoa oso lotuta ikusten dut erdal munduaren mentalitate tradizionalarekin.
 - Ohartarazi beharra dago diskurtsoko "Gu" eta "Haiek" direlako erreferentziak finkatuta zeudela jadanik XI. mendean.

Gu eta Haiek arteko bereizketa iraupen luzeko kontua da Nafarroako historian. Irakurri, bestela, San Migelgo agiri ospetsua: *Soto uno que dicitur a rusticis 'Aker Çaltua'*. **Nos possumus dicere 'Saltus ircorum'**. **Nos possumus dicere 'Soto de [re]ueko'** (beltza nirea da) (Lacarra, 1957). Hau da, alde batetik, *Nos*, Gu, erromantzez edo latinez mintzo zirenak (notarioak, gortesauak, elizgizonak, etab., hau da, Nafarroako goi klaseak), eta, bestetik, Haiek, *rustici*, edo bere sinonimoak: *bascones, rustico vocabulo, vocabulum sortitum, basconea lingua* edo *lingua navarrorum* (Erize, 1999; 70. or.; Lacarra, 1957).

- Nafar eliteak eta euskara: diskurtso hau, hein handi batean, nafar eliteek sortutakoa da. Nafar eliteak populazioaren batez bestea baino erdaltzaleagoak izan dira normalean (CIES, 1990). Hala ere, gogoan izatekoa da Carlos Vilches irakasleak 2002. urtearen amaiera aldean aurkeztu zuen tesian bestelako emaitzak agertzen direla.
- Nafarroako iritzi publikoa eta euskara:
 - o Inkesta soziologiko fidagarriak egin ez bada ere, nire ustez, ez da egia nafar gehienak euskararen alde daudenik.
 - Zatiketa dago: batzuk alde daude, eta beste batzuk ez (batzuk aurka daude, beste batzuk axolagabeak dira). Garbi dago euskal hiztun gehienak alde daudela gaur egun, baina ez dago hain argi zer pentsatzen duten erdal hiztunek.
 - Iraupen luzeko gertaera da hori. Antzeko zerbait salatzen zuen, adibidez, Arturo Campionek (1912; 66. or.), 1867ko San Fermin jaietan egindako nekazaritza erakusketan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek parte hartzearen aurka izandako erreakzioak aipatuz: bere ustez, kontrako jarrera hori zen nagusi orduko nafarren artean.
 - Hala ere, euskaltzaletasunaren munduak uste izan du -eta baita esan ere- nafar gehienak euskararen alde daudela.
- Zerk du garrantzia, nire aburuz, euskaltzaletasuna bultzatzeko? Euskara kultur balore bezala finkatu nahi dugu, baina proposamen horrek sinesgarritasun falta du. Nola lortu sinesgarritasuna euskara kultur balore bezala finkatzeko eta politikatik eta indarkeriatik bereizteko proposamenetan?

- “Euskaltzaleak ez zarete inoiz asetzen, beti gehiago nahi izango duzue, eta horrela ez dago zuetaz fidatzerik”, esaten digute. Euskararen aldeko mugimendutik zer-nolako proposamena egin behar dugu euskararen inguruko adostasun soziala lortzeko? Eta nola adierazi adostasun hori iraunkorra izatea nahi dugula eta prest gaudela, behin akordioa egin eta gero, adostutakoa errespetatzeko?
- Euskara lanpostuetan. Diskriminazioari dagokionak min handia eragin dezake eta tentu handiz ibiltzeko gaia da. Zehaztasun eta seriotasun handiz finkatu beharko liriateke, nire ustez, euskara eskatzen duten Administrazio lanpostuak zein diren eta zein berriz euskara merezimendu kualifikatutzat izan behar duten lanpostuak.
- Ofizialtasuna Nafarroa osoan. Zer da hau praktikan, adierazpen sinbolikoa izateaz landa?
- Hizkuntza eskubideak. Indar berezia ematen digu hizkuntza eskubideei buruzko jurisprudentzia (nazioartekoa nahiz Espainia mailakoa) erabiltzeak eta iritzi publikoari azaltzeak. Aldi berean, gizartearen joerak/legea binomioan, non jarri behar dugu azentua?
- Hizkuntza komunitate desberdinek, euskaldunak eta erdaldunak, bata bestea onar dezaten lan egin behar da. Euskaldunek salatzen dute erdal hiztunek elebakartasuna inposatzen dutela, eta erdal hiztunek, berriz, gauza bera egotzen diote euskararen aldeko politikari. Eztabaida horrek eragina du Nafarroak izan behar duen hizkuntza eredia finkatzeko orduan. Zentzuzkoa al da elebakartasun praktikoa edo, beste maila apalago batean, biztanle guztien elebitasuna bultzatzea, nafarren 81,5% erdal elebakarrak diren egoera honetan? Nire ustez, egokiagoa da Nafarroan bi hizkuntza komunitate daudela onartzea, biak ere legitimitate berekoak. Hortik aurrera, euskara ikastea borondatez egin beharreko zerbait dela garbi utzi beharko litzateke, baldin eta, aldi berean, euskaraz bizi nahi duen nafarrari babesa eta bitartekoak emateko prest baldin badago beste komunitatea.
- *Lingua navarrorum* argudio ahula da nire ustez. Erabilera anakronikoa egiten ari gara termino horrekin. Idatzi zenean bestelako kutsua zuen, lehen aipatu dudak bezala (Erize, 1997 eta 1999).
- Ez nintzateke tematuko terminologiarekin.

“Normalizazioa” kontzeptua oso arrunta da guretzat, baina ez da erabilpen orokorrekoa literatura soziolinguistikoa. Penintsulatik kanpo gutxi erabiltzen da. Termino hori katalanek asmatu zuten eta beraiei kopiatu diegu. Kritikak jaso ditu termino horrek: Louis Jean Calvet (1993; 120. or., 1. oin-oharra) soziolinguista frantses ezagunaren arabera, kutsu ideologiko eta dogmatikoa hartzen ari da. Gainera, nor da normala zer den esateko gai?

4. Euskararen aldeko diskurtsoa osatzeko ardatz nagusiak

- Gure erronka nagusia da euskararen defentsan **nagusitasun moralaren lehia** irabaztea hemengo eta kanpoko iritzi publikoaren aurrean. Denen aurrean argi eta garbi uztea arrazoi edo eskubide etikoak gure alde daudela.
- Diskurtsoaren bidez zer etorkizun nahi dugun adierazten ari gara, geuretzat nahiz nafar guztientzat. Hiritar eta hiztun **guztiak kabitzen** diren etorkizuna irudikatu behar dugu.

4.1. Balio didaten argudioak

- Irizpide nagusiak:
 - Anbizio teoriko eta zientifikoa, eta zorroztasun intelektual eta etikoa. Bai ikerkuntza lanetan, bai dibulgazio edo propaganda mailan.
 - Euskararen defentsaren baloreak zientziarekiko eta egiarekiko konpromisoan oinarritu behar ditugu.
 - Ez dugu lotu behar euskararen defentsa enpirikoki gezurta daitezkeen baieztapenekin: *lingua navarrorum*, “euskara, Nafarroako hizkuntza propio bakarra”, “gaztelania kanpotik ekarritako hizkuntza da”, “nafar gehienak euskararen alde daude”, etab.
 - Euskaldunen buruaren onespina indartzen duten argudioak erabili behar ditugu.
- **Eleaniztasunaren** onespina: pluralismoa.
 - Nafarroako bi hizkuntza komunitateen elkarren onarpen sakona: horrek elebitasunaren ideiatik abiatzeko eskatzen du, ez elebakartasunetik.

- Elebitasun gehigarria, ez kentzailea.

- **Berdintasuna:**

- Ideia hau argi eta garbi agertzen da Joshua Fishman soziolinguista ospetsuaren lanetan (1999 eta 2001).
- Baita Sánchez Carrión “Txepetx” ere: *“Lo que esta Teoría propone no es mayorizar la lengua minoritaria, minorizando a la mayoritaria, términos en que la perspectiva estatalista —de uno y otro signo— intenta llevar reiteradamente el problema”* (1999; 282. or.). *Ideia hauek “no son para usarlas contra el dominador, convirtiéndose al verdugo en víctima y a la víctima en verdugo, reproduciendo incansablemente un círculo vicioso, cainita”* (ibid.; 182. or., 134. oin-oharra).
- Simetria: guretzat nahi duguna besteentzat ere nahi izatea, eta alderantziz.
- Horrela, gure argudioak defendagarriak izango dira erdaldunen eta kanpotarren aurrean, eta bi komunitateen arteko zubiak eraikitzen lagunduko dute.

- Argudio **konstruktibistak**, ez primordialistak:

- Primordialismoa da kultura, hizkuntza, etnizitatea alde aurretik emandako konstante bat bezala ikustea, berezko loturak dituztenak kultura jakin batekin. Lotuta dago esentzialismoarekin. Kutsu primordialistako argudioak baztertu egin behar ditugu.
- Argudio konstruktibistak erabili behar ditugu: hizkuntza edo etnizitatea gizartearen emaitza dira, historikoak, besteekiko harremanetan moldatuak, aldakorak... Horrek ez du esan nahi talde etniko edo linguistikoak “asmatutako komunitateak” (Benedict Anderson, 1983/1993) direnik.

- Euskararen **sustrai historikoak:**

- Baina kontuz hainbat argudio historizistarekin, historiak ez baitu beti euskararen alde hitz egiten. Adb.: Nafarroako Erresuma aldarrikatzeak ez dakar berez euskararen defentsa.

- **Hiritarren erabaki librean** oinarritutakoak.

- Helburua: euskararen eta euskaldunen **garapen osoa bermatzea**, informala eta formala, eta erdaldunena ere bai, noski.

- Euskara Nafarroako biztanle askoren hizkuntza da.
- Euskaldunek, oro har, beren hizkuntza maite dute.
- Pertsonen borondatea: nafar askok, euskaldunak nahiz erdaldunak, euskara bultzatzeko eskatzen dute.
- Historia: euskara Nafarroako hizkuntza historikoa da, nahiz eta ez bakarra.
- Irakaskuntzan, nahi duten guztiei aukera ematea euskara edo euskaraz ikasteko Nafarroako eskualde guztietan.

4.2. Balio ez didatenak

- Kutsu primordialista edo esentzialista dutenak: euskara Euskal Herriaren arima, bihotza...
- *Lingua Navarrorum*.
- Elebakartasunaren ildotik doazenak, elebitasunaren aurkakoak: adibidez, “elebitasuna tranpa da”; bideseinale elebidunak ezabatzea...
- Gaztelaniaren aurkakoak: gaztelania kanpoko hizkuntza bezala vs. euskara Nafarroako jatorrizko hizkuntza.
- Historizismo lerratua, edo merkea, edo faltsua...
- Etab.

Bukatzeko, gogoan izan dezazuen nahi nuke, eztabaidatzeko iradokizunak aurkeztu ditudala, ez egia biribilak.

Bibliografia

Aztertutako testuak

ARANAZ, I. “El euskera como riqueza”, In: *Diario de Navarra*, 2001eko azaroaren 28koa; 23. or.

ARBELOA, V.M. *Navarra y el vascuence*. Iruña: Gobierno de Navarra, 2001.

ARTETA, A. “El engaño de la lengua “minorizada””, In: *Diario de Noticias*, 1997ko maiatza.

ARTETA, A. “Euskara galtzea ez litzateke oso larria”, In: *Nafarkaria, Euskaldunon Egunkaria*-ren gehigarria, 1997ko maiatzaren 30ekoa; VIII. or.

- ARTETA, A. "Las insidias de un bilingüe", In: *Diario de Noticias*, 1997ko ekainaren 2koa.
- CAMPIÓN, A. "Don Juan Iturralde y Suit", In: *Obras de D. Juan Iturralde y Suit*, Iruña: Imprenta y Librería de J. García, 1912; V-CCIV orr.
- DEL BURGO, J.I. "El vascuence, ¿idioma nacional o caballo de Troya?", In: *El ocaso de los falsarios*, Madril: Laocoonte, 2000; 73-95 orr.
- PARTIDO SOCIALISTA DE NAVARRA-PSOE. *Declaración política del Comité Regional del Partido Socialista de Navarra-PSOE acerca de la Política Lingüística desarrollada por el Gobierno de Navarra en aplicación de la Ley Foral del Vascuence* [mekanografiaturiko agiria], Iruña, 2000ko maiatzaren 20koa.
- PEGENAUTE, P. "Introducción". In: *Navarra y el vascuence*, Iruña: Gobierno de Navarra, 2001; 7-8 orr.
- SEBASTIÁN, F. "La conciencia cristiana ante el terrorismo", In: *Diario de Navarra*, 2002ko urtarrilaren 17koa; 41-48 orr.
- CRAWFORD, J. *At War with Diversity*. Clevedon (Britainia Handia) -Tonawanda, NY (USA): Multilingual Matters, 2000.
- ERIZE, X. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*, Iruña: Nafarroako Gobernua, 1997.
- ERIZE, X. *Vascohablantes y castellanohablantes en la historia del euskera de Navarra*, Iruña: Nafarroako Gobernua, 1999.
- FISHMAN, J.A. Elkarrizketa Joshua Fishman-ekin: "Sozilinguistika ez da nik espero nuen moduan garatu" (Xabier Erizek egindako elkarrizketa), In: *BAT*, 32 zenb., 1999; 113-123 orr.
- FISHMAN, J.A. *Can Threatened Languages Be Saved?*, Clevedon: Multilingual Matters, 2001.
- LACARRA, J.M. *Vasconia medieval: historia y filología*, Donostia: Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo de la Excm. Diputación Provincial de Guipúzcoa, 1957.
- MAY, S. "Accommodating and Resisting Minority Language Policy: The Case of Wales", In: *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 3, 2000; 101-128 orr.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M. "Txepetx". *Aplicación sociolingüística de la territorialidad: márgenes de encuentro*, Bilbao y el euskera. Bilbo: Bilboko Udala, 1999.
- VAN DIJK, T.A. *Ideology*. Londres: Sage Publications, 1998.
- VAN DIJK, T.A. "El estudio del discurso", In: *El discurso como estructura y proceso*, Bartzelona: Gedisa, 2000; 21-65 orr. (1. edizioa ingelesez: 1997).

Aipatutako bibliografia

- ANDERSON, B. *Comunidades imaginadas*, Mexiko: Fondo de Cultura Económica, 1993 (Jatorrizko edizioa ingelesez: 1983).
- ARREGI, M. *Euskararen inguruko diskurtsoaren eraiketa Nafarroan* (txosten mekanografiatua). Biarritz: Udako Euskal Unibertsitatea, 2000.
- CALVET, L.J. *La sociolinguistique*. Paris: Presses Universitaires de France, 1993.
- CIES. *Nafarren euskararekiko jarreraren azterketa*. Gobierno de Navarra: Departamento de Presidencia e Interior, 1990.

